



Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava

Mahastizaintza eta Enologia zerbitzua
Servicio de Viticultura y Enología

MAHASTIZAINZAREN EGOERARI BURUZKO TXOSTENA. 2017KO EKAINAREN 8A

Maiatzeko prezipitazioei, zeinak batez ere ekaitz itxuran erori baitira, eta ekain honetan egondakoei esker, ura izan dugu 30 eta 50 litro artean, eta horrek hein batean arindu egin du nekazaritza urtean pilatu dugun ur defizit handia.

Euriaren eta tenperatura altuen ondorioz, garapen begetatibo handia egon da eta horrek on egin die mahastiei, oro har, eta batez ere apirilaren 28ko izoztea jasan zuten mahastiei.

Eragindako azalera egon den garapen begetatiboa erabatekoa izan da, gutxienez 1.000 hektareatan eta oso aldakorra gainerakoan. Gaur goizegi da zehazteko zein eragin izango duen izozteak etekinetan; aleak mamitu eta, are, heldu arte itxaron beharko da, jakiteko zenbat mahats mordo eta ale diren bideragarri mahatsondoko; baita nolakoa den ere heltze prozedura, zeina, jakina, oso irregularra baita, mahats mordo batzuk kimatze goiztiarretatik baitatoz, eta beste, batzuk, berriz, izoztearen ondoren kimatu ziren ernamuinetatik.

Edonola ere, esan daiteke egur zaharraren ernamuinak egoki kimatu direnez, hurrengo kanpaina inaste egurra egongo dela bermatuko duten aihenak sortuko dira. Horren guztiaren ondorioz, mahasti kaltetuetan lan estra bat egin da udaberriko eragiketetan, urte normal batean baino askoz handiagoa, eta lan hori egiten jarraitu beharko da ia uda guztian, udaberriko kimaketarik ez egiteko eta kimu berriak kentzeko, eta mahatsondoaren elikadura kimu bideragarrietara helarazteko. Bestalde, gaixotasun arriskuak, batez ere oidioa eta gorrina, handitu egiten dira zenbat eta begetazioa pilatuago egon, eta zauri eta ebaki gehiago egoten direlako udaberriko eragiketetan.

Mahastiaren fenologiari dagokionez, H egoeran dago oro har; hau da, lore begiak banatuta daude, nahiz eta ez den arraroa aurkitzea lurzatiak, non aurreratuta baitago loraldiaren hasiera, eta mahastiak, non kimatzeak berantiarrek diren izoztegatik; hartara, mahatsondoak eta mahats mordoak egoera fenologiko oso desberdinetan daude.

Izurrite eta gaixotasunei dagokienez, gorrina agertu da euriaren eta tenperatura altuaren ondorioz, eta dagoeneko orbanak agertu dira hainbat tokitan. Komeni da lurzatiak zaintzea eta mahastiak babestea loraldiaren hasieran, tratamendu baten laguntzarekin; hau da, produktu sistemikoen bidez, eta ahal dela begetazio guztia ongi bustiz.

Halaber, arrisku handia dago oidioz kutsatzeko, eta hori dela-eta komeni da mahastiak ere babestea, loraldiaren hasieran.

Akaroei dagokienez, akariosia eta erinosia aipatu behar dira; nahiz eta bigarrenak ez duen arazo handiegirik ematen, komeni da kontuz ibiltzea inbasio handiak egonez gero, eta

sufrea eman behar da hautseztatuz. Akariosi asko badago, behar bezalako akarizida bat erabili beharko da, sufrea ez baita izaten nahikoa.

Sitsaren lehenengo generazioa hegaz ari da, baina horretarako ez da beharrezkoa izaten tratamendurik, normalean ez baitu eragiten kalte handirik.

Funtsean, Arabako Errioxa bi zonatan banatuta dago, ekialdekoa Moreda Arabatik Guardiaino, non garapena ona baita oro har, nahiz eta badiren mahasti batzuk oso kaltetuak, eta mendebaldekoa, Guardiatic Bastidaraino, non mahastiak izoztetik berreskuratzen ari baitira, eta horrek, zalantzarik gabe, ondorio larriak izango ditu etekinetan, baita kostu handiak ere laboreetan, areagotu egin dira-eta nabarmen.

Mamitzetik abiatuta, beste txosten bat egingo da, non baloratu ahalko baita loraldiaren eta ernalketaren prozesua, eta ondorioz mahatsaren lagina, mahats bilketa sasoiari begira.

Mahastizaintza eta Enologia Zerbitzua